ZIUR JARDUKETA PLANA 2027

FUNDAZIOA

ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALEKO ZENTROA

1. DATU OROKORRAK

- **Fundazioaren izena:** ZIUR FUNDAZIOA
- **IFK:** G75203067
- **Helbidea:** Zuatzu Urola Eraikina 1
- **Herria:** Donostia.
- **Posta Kodea:** 20018
- **Harremanetarako telefonoa:** 943240988
- **Posta elektronikoa:** ziur@ziur.eus

2. XEDEA

ZIUR Fundazioaren fundazio estatutuen arabera, bere helburua da “lurraldeak dituen Fabrikazio Aurreratuaren arloko ahalmenak indartzea; bereziki, zibersegurtasun industrialaren arloan, teknologia-sektorearen garapena sustatuz, eta Gipuzkoako enpresen –bereziki, industria sektorekoen– nazioarteko kokapena eta lehiakortasuna indartuz”.

Zentroa abiaraztearen aldeko apustu garbia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gipuzkoako lurraldean zibersegurtasunaren arloko enpresa kopuru handia biltzen da. Era berean, baditu zibersegurtasunean paper garrantzitsua duten bi unibertsitate eta Zientzia eta Teknologia Sarean sartuta dauden zentroak ere.

Beraz, Gipuzkoak lurralde berean biltzen ditu eskari potentziala, industria ehunak ezin badu ere bera bakarrik anbizio handiko babes sistemarik garatu; zibersegurtasun arloan zerbitzuak ematen erreferenteak diren enpresa multzo bat du, eta baditu ezagutza sortzen duten hainbat eragile ere, 4.0 industriaren ingurunean mehatxuak prebenitzeko aurrerabidea ekar dezaketenak.

Aldeko ekosistema honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ZIUR FUNDAZIOAren bitartez, lidergo papera hartu behar du eta ekimenak bideratzen saiatu behar du industria sektorearen eta zibersegurtasun arloko teknologien mesederako, Lurraldea zaintza eta ezagutza arlo horretan mundu mailako erreferente gisa artikulatzeko.

Laburbilduz, ZIUR FUNDAZIOAREN helburua, honako lau alderdi hauetan oinarritzen da:

a) Ezagutzaren sorkuntza bultzatzea zibersegurtasun arloan.
b) Eragileen, enpresen eta industrien sentsibilizazioa eta prestakuntza.
c) Zibersegurtasunarekin zerikusia duten praktikak ezartzeko aukera zabaltzea eta enpresen eskura jartzea.
d) Prebentzioko eta esku hartzeko tresnak eskaintzea.

3. JARDUERAK

Bere helburuak betetzeko, fundazioak honelako jarduerak garatuko ditu:

Ezagutza sortzea

- Emaitza akademikoak eta Zientzia eta Teknologia Euskal Sarea dinamizatzea, enpresekin batera proiektuak garatzeko.
- Enpresen esku jartzea zibersegurtasun industrialeko laborategi bat
- Produktuen indsutrialen segurtasun analisia
- Ikerkuntza zibersegurtasunaren arloan.

Sentsibilizazioa eta prestakuntza

- Kanpaina teknikoak
- Mintegiak, hitzaldiak, topaguneak.
- Prestakuntza espezifikorako materialak sortzea.
- Topagune akademikoak sortzea.
- Ikastaroak sortzea beste laguntzaile akademikoekin batera.

Zibersegurtasunarekin zerikusia duten ohiturak hedatzea.

- Informazioa hedatzea.
- Teknologia behatokia.
- Metodologiak eta tresnak zehaztea eta garatzea.
- Enpresa elkartuen aktiboen datu basea sortzea.
- Estatuko eta nazioarteko sareetan parte hartzea.
- Teknologia behatokia.

Prebentzioko eta esku hartzeko tresnak eskaintzea.

- Autodiagnostikorako zerbitzuak eskaintzea eta diagnostiko espezifikoak bideratzea laguntzaile sarearen bidez.
- Gertakarien aurrean erantzunak koordinatzea.
- Alertak eta ohartarazpenak.

4. HELBURUAK

2026an, honako ekimen hauek hedatu dira, Gipuzkoako industria-sareari zibersegurtasunaren arloko prozesuak hobetzen laguntzeko:

- 2025ean hasitako **produktu industrialen diseinuaren segurtasun-proiektua** amaitzea: Zibersegurtasuna ebaluatu da 6 produktu industrialen diseinuan, hiru sektoretakoak: IoT, Automozioa eta Gailu medikoak. Proiektuaren helburua da Gipuzkoako enpresa ekoizleak kontzientziatzea ebaluazio horiek egin beharraz, datozen hilabeteetan Europatik (CRA, UNECE R-155 eta R-156, MDR eta abar) argitaratuko diren derrigorrezko ziurtagiri mota horietarako prestatzeko.

- 2026an, **industria-produktuen, gailuen eta/edo konektatutako osagaien esparruko zibersegurtasunaren ebaluazioan eta ziurtapenean** oinarritutako proiektu bat hasi zen, baldintza horiek ezartzen dituzten araudi eta estandar sektorialei erantzuteko. Ekimen honen helburua Gipuzkoako manufaktura-enpresei, bertikal ezberdinetakoak, Europako araudi ezberdinetara egokitzeko prestatzen hastea da.

  Horretarako, MarketPlace bat sortu zen. Horren bidez, zibersegurtasuneko ekosistemako hainbat enpresa eta agentek horri lotutako zerbitzuak ematen lagunduko dute.

  2027an zehar, proiektu hori gauzatzen jarraituko da, 60-80 enpresak parte hartzea eta hainbat prestakuntza-zerbitzu eta -ekimen abian jartzea aurreikusten duena.

- **Esposizio-azalera ebaluatzeko** proiektuaren lizitazioa. Bertan, 21 enpresa industrialen zibersegurtasun-heldutasuna ebaluatuko dugu, euskal start up (NNEAT) baten soluzioan oinarrituta.

- **Zibersegurtasuneko euskarazko hiztegi bat** egin da, sektoreari zibersegurtasuneko zenbait kontzeptu bateratzen laguntzeko. Kontzeptu horiek, gehienetan, anglizismoetatik datoz, eta ez dago euskaratzeko irizpide bateraturik.

- **Prestakuntza proiektuaren lizitazioa, zibersegurtasunaren eta AA ezartzearen arrisku berrien arloko profil teknikoentzat.** 24 enpresak hartuko dute parte. Proiektuaren helburua da enpresa horien profil teknikoak prestatzea, industria-enpresetan IA teknologiak sartzeak dakartzan arrisku berriei buruz.

- **Talentua sortzea:** Mundu akademikoarekin elkarlanean jarraitzea, talentuari dagokionez merkatuaren beharrak hurbilduz eta horiek sortzeko ekimen berriak bultzatuz.

- ZIURen barne-sareko zerbitzarien eta biltegiratzearen azpiegitura berritzea eta garatzea, azpiegitura horren gehiengoa euskarritik kanpo geratzen baitzen 2026an.

Hona hemen 2027rako lan ildo nagusiak:

- Inbertsioak egitea, batez ere ZIUR laborategi industrialaren sareko teknologien zabalkuntzan oinarrituta. 2027. urterako ZIUR laborategiko azpiegitura teknologikoaren zati bat berritzea aurreikusten da, laborategiaren mantentze-zerbitzua 2026ko abenduan amaitzen baita.

- Gipuzkoako Zibersegurtasun Industrialeko Zentroaren berezko zerbitzuak eta jarduerak gauzatzea, zibersegurtasuneko laborategiarekin eta behatokiarekin zerikusia dutenak barne, betiere Gipuzkoako ehun industrialaren zibersegurtasuneko gaitasunak indartzea bilatuz.

- Zibersegurtasunaren arloko ekintzailetzari laguntzea, Gipuzkoa zibersegurtasunean espezializatutako ekintzailetza-gune gisa kokatzeko.

- Proiektua gauzatzen jarraitzea, **industria-produktuen esparruko zibersegurtasunaren ebaluazioari eta ziurtapenari** dagokienez, bai eta horri lotutako jarduera guztiei dagokienez ere.

- **Esposizio-azalera ebaluatzeko** proiektua gauzatzea.

- **Profil teknikoentzako prestakuntza-proiektua gauzatzea zibersegurtasunaren eta AA ezartzearen arrisku berrien esparruan**.

2027ko honako helburu kuantitatiboak ezarriko dira:

- Laborategian 12 ekintza aurrera eramatea hirugarrenekin lotutako jarduerekin.
- Zibersegurtasunaren Behatokiak sustatutako ekimen eta jardueretan 140 enpresak parte hartzea..
- Zibersegurtasun-zentroak erantzundako enpresen kopurua (helburu anitzekoa): 240.

5. 2027 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

PRESUPUESTO DE GASTOS		GASTO TOTAL:	1.910.526,00 €
CLASIFICACIÓN ECONÓMICA			2027
Capítulo 1: Gasto de personal			339.357,00 €
Capítulo 2: Gastos corrientes en bienes y servicios			1.397.485 €
20. Arrendamientos			79.525 €
21. Reparaciones, mantenimiento y conservación			14.950 €
220. Material de oficina			1.993 €
221. Suministros			14.950 €
222. Comunicaciones			6.221 €
226. Gastos varios			6.494 €
227. Trabajos realizados por profesionales o empresas especializadas			1.259.872 €
23. Indemnizaciones por razón de servicio	Dietas, estancias, locomoción y traslados		13.480 €
Capítulo 6: Inversiones reales			173.684 €
622. Edificios y otras construcciones			- €
64. Mobiliario y enseres			4.080 €
65. Equipos para procesos de información			169.604 €

PRESUPUESTO DE INGRESOS	INGRESO TOTAL:	1.910.526 €
CLASIFICACIÓN ECONÓMICA		2.027 €
Capítulo3: Tasas y otros ingresos		- €
34. Prestación de servicios (servicios a empresas+laboratorio)		- €
Capítulo 4: Transferencias y Subvenciones Corrientes		1.736.842 €
420. Transferencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa		1.650.000 €
46. Transferencias de Ayuntamiento Donostia-San Sebastián		86.842 €
471. Transferencias de empresas privadas (patrocinadores)		- €
49. Transferencias del exterior (Proyectos europeos)		- €
Capítulo 7: Transferencias de Capital		173.684 €
72: Transferencias de Capital de Diputación Foral de Gipuzkoa		165.000 €
73: Transferencias de Capital deL Ayuntamiento Donostia-San Sebastián		8.684 €

6. 2027KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

6.1 Gastu aurrekontua

Zentroaren gastu garrantzitsuak honako kontzeptu hauei dagozkie. Langile-gastuak, errentamenduak, ekipoak kontserbatzeko gastuak, kanpoko profesionalek egindako lanak, eta informazio prozesuen hornidura.

Gastuen aurrekontua guztira: **1.910.526 €**

6.1.1 Langileak

Guztira, 4 langile aurreikusten dira.

Langileen gastua, guztira: **339.357 €**

6.1.2 Gastu arruntak eta ondare zerbitzuen gastuak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 1.397.485 € dira guztira. Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen da:

- **Errentamenduak** 250m^2-ko azalera duen lokala, Donostiako Zuatzu Enpresa Parkean.

  Alokairuen gastua, guztira: 79.525 €

- **Ekipoen kontserbazioa.** Kontu sail honetan euskarri teknologikoak martxan jartzeko gastuak eta mantentze lanak aurreikusten dira.
  - **Lokala mantentzea:** lokalaren mantentze lanetatik eratortzen diren gastuen kalkulua.
  - **Inprimaketa:** Inprimaketa zerbitzuen gastuak.

Ekipoak kontserbatzeko gastua guztira: 14.950 €

- **Bulegoko materiala** Bulegoko hainbat materialen eta suntsikorren kostuak.

Bulegoko materialen gastua guztira: 1.993 €

- **Hornigaiak.** Hornigai arruntak sartzen dira, hala nola ura edo argindarra, erregaiak eta produktu basikoak.

Hornigaien gastua guztira: 14.950 €

- **Komunikazioak.** Telefonia finkoa, mugikorra eta Interneteko konexioa.

Komunikazio gastua guztira: 6.221 €

- **Hainbat gastu:** lehen mailako kolaboratzailea sare bat garatzeko. Harpidetza eta parte hartzeko kuotak atal honetan sartzen dira.

Hainbat gastu guztira: 6.494 €

- **Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak.** Betiko jarduerak egingo dituzten bertako langileez gain, zentroak hainbat arlotako langile espezializatuen laguntza izango du. Aurreikusten diren arloak honako hauek dira:
    - **Aholkularitza/ikuskaritza:** Atal honetan kanpo talde espezializatuen kontratazioa sartzen dira, hala nola ziurtapenerako kontu ikuskaritzak, memoriak eta/edo behatokiaren txostenak idaztea.
    - **Marketina eta publizitatea:** Fundazioaren komunikazio- plana garatzea, kanpoko zerbitzu espezialisten bidez, edukiak sortzea eta berariazko ekitaldiak egitea barne.
    - **Kanpoko zerbitzuak**

- Zentroaren osagai teknologiko sendoak kanpo-laguntza behar du eremu horretan. Nabarmentzekoa da zibersegurtasuneko langile espezializatuak azpikontratatzea, barneko ekipoen eta sareen mantentze-lanetan eta euskarri teknikoan eta kanpo-komunikazioen arloan.
- Atal honetan aurreikusten da, 2026an, 4. atalean zehaztutako proiektua gauzatzea: MarketPlace bat sortzea Gipuzkoan, produktu industrialen diseinuan zibersegurtasuna ebaluatzeko. Bi urteko proiektua denez, proiektu honen lan-karga handiena 2026ko ekitaldian gauzatu da.
- Zerbitzarien eta biltegiratzearen azpiegituraren bilakaerari dagokion proiektua ere, 4. puntuan deskribatzen dena, atal honi dagokio, gauzatzeko kanpoko adituen laguntza behar baitu.
- Esposizio-azalera ebaluatzeko proiektuari lotutako 3 kanpainetatik lehenengoa gauzatzea; atal honi dagokio.
- Lehen lantaldearekin prestakuntza gauzatzea ere atal honi dagokio, Zibersegurtasunaren eta AA ezartzearen arrisku berrien arloko profil teknikoen prestakuntza-proiektuarekin lotuta dauden 4 lantaldeetatik.
- Prestakuntzaren esparruan, fundazioko langileen prestakuntza-planarekin batera, enpresen eta eragileen sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueren ondoriozko gastuak jasotzen dira. Lanbide Heziketako eta Batxilergoko zentroetako zibersegurtasunaren arloko prestakuntzara bideratutako jardunaldiak aurreikusten dira, baita graduondokoen eta unibertsitate-masterren finantzaketan parte hartzera bideratutakoak ere.
- Fundazioa eraginkorra izateko beharrezkoak diren kanpoko laguntza-zerbitzuak sartzen dira.

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanen gastua guztira: 1.259.872 €

- **Zerbitzuaren araberako kalte ordainak:** atal honetan, zentroetako langileen joan-etorriak, dietak eta antzerakoak sartzen dira.

Zerbitzuaren araberako kalte ordainen gastua guztira: 13.480 €

6.1.3 Inbertsio errealak

- **Altzariak eta lanabesak:** Mota honetako instalazioentzako erabiltzen diren altzariak

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealak: 4.080 €

- **Informazioa prozesuetarako ekipamenduak** Zentroaren operatiboa garatzeko beharrezkoa den plataforma teknologikoa garatzeko eta mantentzeko beharrezko inbertsioak jasotzen dira (HW, SW eta beste beharreazko elementuak)..

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 169.604 €

6.2 Sarreren aurrekontua.

ZIUR Fundazioaren negozio-ereduak diru-iturri nagusi bat du, iturri publikoen finantzaketari dagokiona.

Sarreren aurrekontua, guztira: **1.910.526 €**